



BANDOA

Eako Udalerian COVID-19 kasurik gabe igaro genuen konfinamendua. Herritar guztiek egindako esfortzu kolektiboak, babeserako neurri pertsonalek eta Udaletik hartutako neurriek ahalbidetu zuten gure herrian beste gune batzuetan baino lasaiago bizi izana egoera larri hau. Tentuz jokatu genuen, herri gisa erantzun genuen eta emaitza paregabeak lortu genituen, denoi esker.

Konfinamendu garaia bukatu zen eta gure herriko kaleak bete ditugu berriz, modu ezberdinean. Ezin dira errepikatu urtero uda garaian bizitzen ditugun jaiak, moilako arratsalde paregabeak edota familiarterako bazkari jendetsuak. Baina herriko kaleak bete dira berriz, eta hori poztekoa da.

Bagenekien etapa berri hau zaila izango zela eta, halaxe izan da. Eara ere iritsi da COVID-19a. Ea ez da gehiago COVID-19 gabeko herria izango, eta hori itxaroten egon garen berririk txarrena da.

Ez gaude larritzeko egoeran, baina horrelako berriek hartu beharreko neurriak betetzearen garrantzia gogorarazten digute. Eako Udalak ondorengo neurriak hartu izan ditu orain arte, eta horrela jarraituko dugu aurrerantzean, COVID-19a desagertu arte:

1. Gure herriko gune publikoak itxita jarraituko dute: Eskolondo, Natxituko Bolatokia, Bedaronako Txokoa, Beletxe elkarte eta gazteen lokalak.
2. Gure herriko kaleak egunero desinfektatzen jarraituko dugu: moila, kolunpioak, bankuak, udala, farmazia, parke berria...
3. Komunak irekita mantenduko ditugu, 2 orduro desinfekzio sakona eginez. Hau da orain komunek ordutegia izatearen arrazoia, langileek ere deskantsatu behar dute eta.
4. Gure herriko kaleak alaitasunez eta kulturaz betetzen dituzten jai eta kultur ekitaldiak bertan behera geldituko dira.
5. Kotxeak gure kaleetatik kanpo jarraituko dute, pertsonen arteko distantziamendua mantendu ahal izateko.
6. Zubiek noranzko bakarra izaten jarraituko dute.
7. Herrian zehar gel dispentsadoreak jarri eta mantendu, eskuak desinfektatzeko.
8. Ezin izango da moila, moila pozuan eta tranpolinean eguzkirik hartu. Gune hau hondartza dinamikoa da. Honek bainua baimenduta dagoela esan nahi du, baina ezin gara bertan etzun.

Eako Udaletik neurri hauek esfortzu handiz hartu ditugu, baina beharrezkoak dira guztion onerako.

Horrez gain, babeserako neurri pertsonalak era ezinbestekoak dira:

1. 1,5 metroko distantzia mantendu pertsonen artean.
2. Musukoa erabili denbora guztian, jateko edo edateko izan ezik.
3. Eskuak sarri garbitu.

Zaindu gaituzten, Ea berriz COVID-19 gabea izan dadin.

